

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

19/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, lanari utzi ondoko egoera jakin batzuetarako zerga tratamendu alternatiboa ezartzen duena

Arabako Biltzar Nagusiek 2014ko ekainaren 18an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

19/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, lanari utzi ondoko egoera jakin batzuetarako zerga tratamendu alternatiboa ezartzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Krisi ekonomikoaren larritasunak eraginda, aspaldiko urteetan zerga politikan lehentasun berezia eman zaie bi egitekori: kontu publikoak orekatzeari, batetik, eta abagune ekonomiko txarrak eragiten duen gastu publikoaren gehikuntza estaltzeko behar beste baliabide biltzeari, bestetik. Joera horren adierazgarri dira, esate baterako, Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erabateko erreformak.

Gainera, Arabako Biltzar Nagusiek kontuan eduki dituzte ekonomiaren eta finantzen krisiaren ondorioek gogorren astindu dituzten zergadunak, esaterako finantza erakundeekin hartutako hipoteken konpromisoei aurre egin ezinik etxebizitza galdu dutenak, eta haiek gogoan hartuta salbuespenak edo aldaketak ezarri dituzte hipotekak abiarazteko eta betearazteko eragiketen gaineko kargen arautegian.

Arabako Lurralde Historikoan oso garrantzitsua da ekonomia soziala deritzona. Horretan oso indartsua da langileen parte hartzea euren enpresetan, dela autokudeaketaren bidez (partaidetza edukitzea sozietate kooperatiboaren edo lan sozietatearen kapitalean), dela enpresara baliabide ekonomikoak ekarriz (partaidetza lanean ari den erakundearen kapitalean edo hari mailegua ematea). Gogoan eduki behar da, gainera, erakunde publikoek erruz sustatu dituztela horiek guztiak.

Azken urteotan krisi ekonomiko bortitzak eragin handia izan du ekonomia sozialaren arloan; izan ere, honelako langileak, enpresen kapitalean eta kudeaketan duten inplikazio bereziak bultzatuta, oso egoera makalean izaten dira ziklo ekonomikoak txarrera egiten duenean, eta inoiz gertatu da behinola sektoreko traktore izan den enpresa bateko langileek hartzekodunen konkurtsora jo behar izatea, finantza egoerak beste bide guztiak itxi ondoren.

Are gehiago, egoera horien ondorioz enpresa horietako langileek lankideei elkertasunez laguntzeko asmoarekin enpresari laga dizkiote aldi baterako lanari utzi ondoren jaso behar zituzten baliabideak, enpresak jarduerari eusteko eta palanka efektuaren arriskua murrizteko; bada, krisia dela eta azkenean konkurtso prozeduran amaitu duten enpresetako langileak egoera oso makalean geratu dira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregulazioa, errenta iturriari aplikatu beharrekoa, ez dago egituratuta egoera ekonomiko patologikoen arabera; aitzitik, ohiko inguruabar ekonomikoak oinarriztat hartuta egituratu da, eta horregatik orain ezinbestekoa da berariazko erantzuna ematea ezohiko egoerak arautzeko eta ahalbide ekonomiko urriko zergadunak krisiaren ondorio larrietatik begiratzeko.

1. artikulua. Aplikazio esparrua

Foru arau honetan ezarritako zerga tratamendua ondoko betekizunak betetzen dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei aplikatuko zaie:

a) Zergadunak bazkide izan den erakunde batean jardun behar izan du lanari utzi aurreko bost urteetan, gutxienez.

b) Lanari uzten dionean zergadunak ez du eduki behar jasota erakundearen bazkidea izateagatik jaso dezakeen kopururik batere ondoko inguruabarretako bat dela eta:

i. Jaso beharreko kopuruen ordainketa atzeratzea ezarri edo hitzartu da.

ii. Zergadunak mailegua eman dio lanean aritu den erakundeari.

iii. Zergadunak aldi baterako ekarpena egin du bazkide ezaktibo gisa kapitala gehitzeko.

c) Lanari utzi aurreko bost urteetan zergadunak ezin du jardun erakundearen zuzendaritzan ez administrazioan.

d) Lanari utzi aurreko bost urteetan zergadunak ezin du eduki erakundearen kapitalaren ehuneko 20 baino gehiago, zuzenean zein zeharka, ondoko pertsona hauen partaidetzak gehituta: zergadunarekin Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauko 6. artikuluko bigarren idatz zatiko c) letran aipatzen diren harremanetako batean dauden pertsonak.

e) Lanari utzi ondoko bost urteetan erakundea hartzekodunen konkurtsoan sartu behar da.

f) Aurreko guztiaren ondorioz aurreikusita egon behar da zergadunak ez duela berreskuratuko aurreko b) letran aipatzen den diru kopuru osoa.

2. artikulua. Zergadunak lanari utzi ondoren jaso ditzakeen diru kopuruek sortzen dituzten ondare irabazien zerga tratamendua

Bat. Foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergadunek lanari utzi ondoren jaso ditzaketen kopuruek sortzen dituzten ondare irabaziak (foru arau honetako 1. artikuluko b) letran aipatzen diren zenbatakoei dagokien zatia) foru arau honetako 1. artikuluko f) letran aipatzen den ondare galera egotzi behar den aldi berari egotzi ahal dizkiote.

Bi. Aurreko hautapena erakundea hartzekodunen konkurtsoan dagoela adierazten duen autoa ematen den zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitu arte egin ahal izango da.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoari heltzen dioten zergadunek zenbateko bat itzultzeko eskubidea edukiko dute, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tributazioan lehenengo idatz zatian aipatzen diren ondare irabaziengatik ordaindutako kopuruaren zati proportzionala. Zerga Administrazioak bigarren idatz zatiko hautapena egin ondoko sei hiletan itzuliko dio bidezko kopurua zergadun bakoitzari, berandutze korrituak aplikatu gabe.

3. artikulua. Zergadunek jaso gabeko kopuruen ondoriozko galeren konpentsazioa

Bat. Foru arau honetako 2. artikuluan xedatutakoari heltzen dioten zergadunek 1. artikuluko f) letran aipatzen diren ondare galerak konpentsatuko dituzte 2. artikuluan aipatzen diren ondare irabazien zati batekin, hain zuzen ere zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian integratu ez diren ondare irabaziekin. Konpentsatu ezin duten zatiari ezin izango diote aplikatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 65. artikuluan xedatutakoa.

Bi. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, zergadunek hautatu ahal izango dute artikulu honetan ezarritako zerga tratamendu alternatiboa gabe Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 65. artikuluan ondare galerak integratzeko eta konpentsatzeko araubide orokorra aplikatzea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Foru arau hau indarrean jarri aurreko egoerak.

Foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergadunek bertan ezarritako zerga tratamendu alternatiboari heldu ahal izango diote hura indarrean jarri ondoko sei hiletan, baldin eta lanari 2009ko urtarrilaren 1az gero utzi badiote eta lanean jardun duten erakundearen hartzekodunen konkurtsoa 2013ko urtarrilaren 1az gero adierazi bada.

Zerga Administrazioak ofizioz erregularizatuko ditu xedapen honek ukitzen dituen zergadunen preskribatu gabe dauden aurreko zergaldietako zerga egoerak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Foru Aldundiari baimena eman zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 18a

Lehendakaria

JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA